



## ❖ URRETXA

### Larunbatean Hechora irteera

Urretxa Mikologia elkarteak Hechora antolatu du irteera larunbatean, egun guztirako. Perretxikoak biltzen ikasteko gogoia duenarentzat izen ematea bihar arte dago zabalik, Urretxa mikologia elkarteko bulegoan, Kale Nagusian. ||

## ❖ KOXKA TALDEA

### Bilera bihar Biterin

Koxka ezinduen elkarteak bilera du bihar, arratsaldeko 17:00etan, Biterin. Bi gai daude aztertzeko: batetik, elkarte legalizatzeko trami-teak zertan diren informatu-ko da eta bestetik, erabaki beharko da Koxka elkarteak nola hartu lezakeen parte kiroldegiari buruz egingo den azterketan, alegia kiroldegia haunditu, egokitu, modernizatu eta abarretan, ezinduen beharrak kontuan hartzea, eta beharrak kontuan hartzeko garaian, ezinduek beren ahots propioa izatea. ||

## Oreka TX taldearen emanaldiak emango dio hasiera 22. Txalaparta Festari

Etzi izango da emanaldia, 19:30etan, Biterin. Ostiralean Sestaoko TX Eskolako taldearen emanaldia izango da eta Party Aparta, Atxurren. Larunbatean izango da Festa Nagusia.

ETZI, asteazkena, hasiko da Txalaparta Festa, Oreka TX taldearen emanaldiarekin. Harkaitz Martinez eta Igor Otxoak osatzen dute Oreka TX taldea, eta Nomadak TX filmaren aurkezpena egingo dute, arratsaldeko 19:30etan, Biterin. Hurrengo emanaldia ostiralean izango da, Sestaoko TX eskola taldearen eskutik: *Hiru ipuin, liburu bakarra*. Gaueko 24:00etan, urteroko emanaldia bihurtu dena entzun ahal izango da Atxur tabernan, txalaparta eta musika diskoa nahastuta: Txalaparta Party Aparta.

### Egun haundia larunbata

Txalaparta Festako hirugarren eta azken eguna larunbatekoa izango da. Arratsaldeko 18:00eta-

tik aurrera, festa izango da kalean eta txalaparta erromeria; alegia, txalaparta saio libreak izango dira, eta inguratzen diren txalapartari guztiek elkarrekin jotzeko aukera izango dute. Gaueko 21:00etan, herri afaria dago eta ondorenean Txalaparta Festa izango da. ||

### ▶ Egitaraua

**Maiatzak 21, asteazkena.** Nomadak TX filma, 19:30etan, Biterin.

**Maiatzak 23, ostirala.** Hiru ipuin, liburu bakarra emanaldia, 19:30etan, Biterin. Txalaparta Party Aparta, Atxur tabernan, 24:00etan.

**Maiatzak 24, larunbata.** 18:00etan, Festa Nagusia; 21:00etan herri afaria, segidan, Txalaparta Festa.



Bi gazte txalaparta jotzen iazko Txalaparta Festan.

## Giza Eskubideen Batzordea eta Hezkuntza, Kultura eta Euskara Batzordea gaur

GIZA Eskubideen Batzordea bilduko da gaur Udaletxean eta hiru gai izango dituzte eztabaidarako. Torturari buruzko gaia izango da lehenengoa; aurreko Giza Eskubideen Batzordean hasi zuten eztabaida eta gaur jarraitzeko dute. Bigarren gaia Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala izango dute. Hirugarren puntuan, berriz, Eusko Legebiltzarrak biktimen inguruan emandako ebazpenak aztertu eta eztabaidatuko dituzte. Batzordea 17:00etan izango da.

### Hezkuntza, Kultura eta Euskara Batzordea

Hezkuntza, Kultura eta Eus-

kara Batzordea ere izango da gaur, 18:30etan, Udaletxean. Zenbait kultur jardueratako diru laguntzen justifikazioak aztertuko dituzte, eta 2008an zuzeneko erregimenean eman beharreko diru laguntzak ere bai. Horrez gain, San Joan jaiak izango dira azterketarako gai. Aurtengo egitaraua eta aurrekontua aztertuko dira, eta festa iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketaren berri ere emango dute Batzordean. Azken puntuan aztertuko dute Biteriko ikastaroak eta auzotako haur-tailerrak eman eta antolatzeko lehiaketa publikoa deitzea. ||



Aurreko Giza Eskubideen Batzordea, Udaletxean.

**Ezkerro**  
Ezkerro fruitak  
- Antziola 5 -  
Telefonoz eskatzeko:  
943 33 32 75  
Bertako fruta eta barazkiak. Fruitu exotikoak; jateko loreak, alfalfa, soja germinatua, frambuesa, arandanoak...

**AITAN - ETXE**  
**TABERNA**  
**ASTEBURUETAN**  
**AFARIAK**  
Larramendi 15  
- Tel.: 943 55 00 46 -

**ITXASPE**  
**Arrendegia**  
Antziola 5 - Tel.: 943 330 365 - Mob.: 653 741 097

**TELEFONOAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
**FARMAZIAK** ● Eguz: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● Gauez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Egunean zehar giro goibel eta bustiarekin jarraituko dugu, baina zaparradak gero eta arinagoak eta sakabanatuagoak izango dira, gainera egunaren amaieran atertzen joango da.

**BIHAR** Tantaren bat edo beste bota dezake, baina euria egitekotan, ez da aipagarria izango. Hodeiak eta ostarreak tarteka izango ditugu. (euskaime)

## ◆ ARETO FUTBOLA

### Hernanik erraz irabazi zion Oartzuni

Hernanik 8-0 irabazi zion larunbatean Oartzuni, markagailuak erakusten duen nagusitasunarekin. Hernaniko alineazioa: Igor, Peio, David (2), Rober, Iban (2) - hasierako boskotea- Javi (1), Izhar (1), eta Luty (2). Partidaz kanpo, Hernaniko taldeko kideek eskerrak eman dizkie oartzuarrei, Judoko txapelketak zeudenez, 200 koltxona eta jartzen lagundu baitzieten Hernaniko jokalariei «inork ezer eskatu gabe». ||



## ❖ MUSIKA

### Musika instrumentuak aukeratzeko emanaldia

Musika instrumentuak aukeratzeko emanaldia izango da asteazkenean, 17:00etan, Biteri kultur etxean. Hernaniko Musika Eskolak antolatuta du. ||

## ❖ SAN JOANAK

### San Joan Konpartsako bilera

San Joan Konpartsako desfilean atera nahi dutenek bilera dute gaur, arratsaldeko 19:00etan, Biterin. Bilera irekia da. ||

### Haurren aureskuko entsaioak gaur hasiko dira

Haurren aureskua izaten da San Joanetan eta gaur hasiko dituzte entsaioak, 18:30etan, Urumea ikastolan, Gay Mur eraikinean. Astelehen eta ostegunetan dira entsaioak. Izen ematea Biterin egin behar da eta beharrezkoa da haurrek aurten 5 urte betetzea, eta bikotearen izena ere ematea. Guztira 50 bikoterentzako lekua izango da. ||

### Haurren tanborradako entsaioak gaur hasiko dira

Gaur hasiko dira haurren tanborradako entsaioak, Etxeberriko Lagun Artea elkartearen, 18:30etatik 19:30etara. Entsaioak astelehenetik ostegunera izango dira. Elkartek dei egin die tanborradan parte hartu nahi duten guztiei, gaur azaltzeko. Jantziak elkartek utziko dizkie parte-hartzaileei. ||



## ◆ MUS TXAPELKETAK

### Partidak Santa Barbaran eta Aralarren

Mus Txapelketak izango dira gaur, Santa Barbara elkartearen eta Aralar tabernan. Santa Barbaran, bigarren fasea dute eta partidak dira: Arruti-Paco/Gurru-Markel, Teo-Txuso/Ketxus-Jesus, Javi-Rafa/Sergio-Kote, Eneko-Haritz/Sesma-Kaki, Elio-Joxe Leon/Julian-Javi, Mauri-Txanpi/Eusebio-Txato, Manu-Josetxo/Arnaiz-Narro, eta Aiert-Jon/Ceci-Karlos. Aralar tabernan ere izango dira partidak: Xalba-Pitxurra/Muñon-Gruñon, Aitor-Alvaro/Jonkar-Joseba, Ketxus-Pako/Iñaki-Pana eta Joxe Ramon-Pako/Imanol-Jexux. ||

## ❖ HITZALDIA

### Tristura eta ezkortasunari aurre egin

Hitzaldia izango da bihar, 17:00etan, Goiz Eguzki jubilatuta etxean. Tristura eta ezkortasunari aurre egin. ||

## ❖ ERAKUSKETA

### Ingurugiroari buruzko erakusketa

Ingurugiroari buruzko erakusketa jarri dute Biteri kultur etxean, eskola-umeek egindako lanekin. Ostegunera arte egongo da. ||

## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Kamarera bat behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuak deitu: 635 746 559

Hernanin aukerako pixua salgai. Sukaldea, 3 logela, komuna, kalefakzioa... Kanpoaldera. Deitu: 628 116 949.

Baserrira hartuko genuke errentan, bi lagunek. Deitu: 656 703 814

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropaxia, osteopatia xamurra, bioaklibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropaxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iniño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

## KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		SASKIBALOI			
Gorengo maila	Hernani-Idiazabal	2-2	Infantilak	Easo Elurra-Hernani	53-39
Gazteen Ohorezko liga	Martutene-Hernani	2-2	Kadeteak	Hernani-Arrieta SS	53-69
Kadeteen Ohorezko liga	Hernani-Hondarribia	0-2	ARETO FUTBOLA		
Kadete Txikien maila	Hernani-Añorga	1-2	3. maila	Yone Boutique-Oartzun	8-0
Infantilak Ohorezko liga	Hernani-Arrasate	7-3			
Alebinak	Touring-Hernani	0-5			